

IRUÑEKO GAZTEENDAKO LITERATUR LEHIAKETA

2021

EUSKERA POESIA 14-16 URTE

LEHENENGO SARIA:

Hotza

Lorea Guembe Otxotorena

Korrontearen alde joan nahi eta ezinean.

Ezin esan ezin senti.

Bularraldean sentitzen dudan hutsunea ezin estalirik,
atzean geratzen ari naizela sentiturik.

Zure begirada bularraldean iltzaturik,
zure berotasuna ezin sentiturik.

Zure hurbiltasuna aguantatu ezinik,
bihotza etxean utzi dudala dirudi.

Zerbait sentituko dudan esperoan
kanpoaldera lasai agertzen naiz.

Antzerkia ulertzen ez duen txontxongilo baten antzera
nirea ez den obra batean.

Noiz izango ote naiz libre?

Noiz piztuko ote zait barruko sua?